


Euskal AEko industria-prezioak % 2,8 jaitsi dira 2025eko maiatzean aurreko hilaren aldean

2024ko maiatzaren aldean, industria-prezioek % 2,0ko jaitsiera izan dute

Eustatek bildutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioek % 2,8 egin dute behera 2025eko maiatzean, aurreko hilaren aldean. Maiatzeko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 2,0 jaitsi da.

Azterketa zehatzago batek agerian uzten du, 2025eko maiatzean, *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza* (% 15,5) eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 14,3) sektoreek izan dituztela jaitsierarik handienak prezioetan, aurreko hilaren aldean. Aitzitik, prezioetan hiletik hilerako igoera handienak izan dituzten sektoreak *Erauzketa-industriak* (% 8,5) eta *Farmazia-produktuen fabrikazioa* (% 6,3) izan dira.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Helburu ekonomikoaren araberako ondasunen sailkapenari jarraituz, 2025eko apirilaren aldean, *Energiaren* prezioak % 5,4 jaitsi dira, *Talde-ondasunenak* % 4,5 eta *Bitarteko ondasunenak*, berriz, % 0,9. *Kontsumo-ondasunen* prezioak, % 2,1 jaitsi dira, *Kontsumo iraunkorreko ondasunenak* % 0,8 eta *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunenak* % 2,4 jaitsi direlako.

Urte artean, 2025eko maiatza 2024ko maiatzaren aldean, prezioen igoerarik handienak honako adar hauetan izan dira: *Farmazia-produktuen fabrikazioa* (% 8,1) eta *Produktu informatiko, elektronikoa eta optikoen fabrikazioa* (% 8,0). Aitzitik, *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza* adarreko prezioek urte arteko % 15,2ko jaitsiera izan dute eta *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea* adarrekoek % 14,5ekoa.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Maiatza 2025

in f X   Eustat-Euskal Estatistika Erakundea



	Indizea	Aldearen %	
		m / m-1	m / m-12
Indize orokorra	109,0	-2,8	-2,0
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	146,0	8,5	7,0
Manufaktura-industria	113,3	-2,2	-2,3
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	123,5	-2,4	-0,8
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	94,1	-15,5	-15,2
Zurgintza, papera eta arte grafikoa	117,5	-3,6	-5,0
Kokeak eta petrolio finitzen	108,3	-0,9	-14,5
Industria kimikoa	124,4	-2,7	-0,8
Botiken fabrikazioa	116,9	6,3	8,1
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	117,3	0,2	0,2
Metalurgia eta produktu metalikoak	108,8	-4,0	-2,4
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	118,7	-5,5	8,0
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	118,5	0,7	4,8
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	112,3	-3,2	-0,2
Garraioren materialen fabrikazioa	114,2	0,4	1,3
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	115,3	-2,2	-0,9
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	60,2	-14,3	4,2
Ura	130,8	0,6	4,1
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	119,7	-2,1	-0,8
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	114,2	-0,8	0,8
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	121,2	-2,4	-1,2
Ekipo-ondasunak	110,5	-4,5	-1,8
Bitarteko ondasunak	115,1	-0,9	0,2
Energia	87,6	-5,4	-8,9

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2025eko Ekainaren 24a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Helburu ekonomikoaren araberako ondasun-talde handien prezioen urte arteko aldakuntza goranzkoa izan da *Bitarteko ondasunetan*. Bertan, % 0,2ko igoera eman da. 2024ko maiatzarekin alderatuta, prezioak % 1,8 jaitsi dira *Ekipo-ondasunetan*. *Kontsumo-ondasunen* prezioak, urte artean, % 0,8 jaitsi dira, *Kontsumo iraunkorreko ondasunenak* % 0,8 igo eta *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunenak* % 1,2 jaitsi direlako. Azkenik, *Energiaren* prezioek % 8,9ko urte arteko jaitsiera izan dute.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman dizkie parte hartu duten establezimendu guztiei egin duten esfortzuagatik. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **89,34**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62